



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriak 10

Vitoria-Gasteiz, 10 de octubre de 2023

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK 300.000 EURO BIDERATUKO DITU TOKI-ERAKUNDEETARA GAZTEEN EMANTZIPAZIO-PLANAK GARATZEKO

- **Udalek gazteen emantzipazioaren egoera ezagutu ahal izango dute**
- **Gainera, gazteen emantzipazioarekin lotutako tokiko ekimenak bultzatzeko aukera emango die**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Gizarte Trantsizioko eta Agenda 2030eko idazkari nagusiaren ebazpenari. Ebazpen horren bidez, Udalei zuzendutako 300.000 euroko diru-laguntzen oinarriak ezarri eta deialdia egin da, gazteen emantzipazio prozesua errazteko helburua duten tokiko ekimenak bultzatzeko.

Deialdi honen laguntzarekin, Udalek gazte-emantzipazioko planak eta gazte-planak egin ahal izango dituzte, bai eta horien jarraipena edo ebaluazioa ere. Gainera, toki-mailako beste ekimen batzuk ere egin ahal izango dituzte, gazteen emantzipazio-prozesua bultzatzeko, bai eta helburu horrekin egindako ekimenak sistematizatzeko eta ebaluatzen ere.

lax, gazteen emantzipazioari lotutako planak eta jarduerak egiteko 7 dirulaguntza eman ziren (58.000 euro guztira). Horri esker, udalek jakin dezakete zein den gazteek udalerrian bizi duten egoera, bai eta zer arlotan sustatu edo indartu behar diren emantzipazioa errazteko neurriak.

Deialdi hori gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030erako Euskal Estrategian jasota dago, erresilientziari buruzko bosgarren ardatzean.

Segurtasuna

LANBIDEK ETA ERTZAINZAK ZERBITZU PUBLIKOAN LAN EGITEN DUTENEN SEGURTASUNEAN LANKIDETZAN JARDUTEKO ETA IRUZUR-SAIAKERAK SAIHESTEKO HITZARMENA EGUNERATU DUTE

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Segurtasun Sailak Lanbideko 42 bulegoetan lan egiten dutenen segurtasuna bermatzen laguntzeko eta iruzur-saiakerak saihesteko hitzarmena eguneratu dute, **Josu Erkoreka** lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak eta **Idoia Mendia** bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak izenpetutako protokoloaren arabera.

Lankidetzak-esparruak, besteak beste, jarduketa hauek barne hartuko ditu: Ertzaintzak Lanbideri eskaintzea bere egoitza eta bulegoetako segurtasunari eta ordenari buruzko analisia, arrisku-ebaluazioa eta aldizkako azterketa; jardun-prozedura egokiak garatzea langileen kontrako mehatxuei, pintadei, sabotajeei edo instalazio eta altzarietako kalteei erantzuteko; une bakoitzean erabakitako ikuskapenak egitea, udal-eroldarekin zerikusia duten gaiekin lotutako irregulartasunak detektatzeko; formakuntza espezializatua egitea dokumentuak faltsutzeari buruzko hitzaldi, tailer edo mintegien bitartez; genero-indarkeriaren biktimen babesari buruzko formakuntza espezializatua; eta jarduteko prozedura egokiak garatzea, prestazio sozialak jasotzen dituzten pertsonen buruzko txostenak eskatzen direnean eskaera horiei erantzuna emateko, Ertzaintzari polizia judizialaren arloan dagozkion eginkizunen esparruan.

Hitzarmen hau datozen lau urteotarako eguneratzeak Enplegu Zerbitzu Publikoarentzat suposatuko du Lanbiden lan egiten dutenen babes bermatzea, prestazioak eraginkortasunez kudeatzeko hartzen joan diren neurriekin bat eginez, kudeaketa bermatzailea izan dadin prestazio horiek jasotzen dituzten pertsonekin eta, aldi berean, zorrotza izan dadin baliabide publikoak erabiltzean. Neurri horiek gainerako administrazio publikoekin elkarrengarritasuna areagotzearekin zerikusia dute prestazioen hartzailen egoera zehatz-mehatz ezagutzeko, bai eta iruzur-saiakerak detektatzeko gaitutako barneko protokoloekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltzarekin eta Polizia Nazionalaren Atzerritartasunerako Brigadarekin irekitako lankidetzabideekin eta joan den abenduan Legebiltzarrak onartutako Inklusiorako eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemari buruzko legean aurreikusitako laguntza-, ikuskapen- eta kontrol-unitatea sortzearekin ere.

Segurtasuna

ERTZAINZAK UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IKASLEEN FORMAKUNTZAN LAGUNDUKO DU

- **Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko ikasleen formakuntza praktikorako UPV/EHUren eta Segurtasun Sailaren artean egindako hezkuntza-lankidetzako hitzarmena da**

Eusko Jaurlaritzak, Segurtasun Sailaren bidez, hezkuntza-lankidetzako hitzarmen bat sinatuko du Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearekin ikasleen formakuntza integrala hobetzeko eta lan-munduan txertatzera begira haien prestakuntza profesionala ziurtatzeko. Hitzarmen horrek UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko ikasleek Ertzaintzan kanpoko praktikak egitea arautzen duen esparrua ezartzen du.

Zehazki, Suizidiologiako Berezko Tituluko ikasleek lanak eta horiekin lotutako praktikak egingo dituzte Ertzaintzaren egoitzetan, Ertzaintzak lagunduta eta aholku emanda, praktika horien harreraren eta tutorizazioaren bidez.

Hitzarmen horrek, bi erakundeentzat beharrezkoa den harreman aberasgarria bideratzeaz gainera, etorkizunean Ertzaintzak gai honetan gauzatuko dituen prozeduren eraginkortasuna ekar dezakeen ikasketak egiteko aukera emango du.

Segurtasun Saila aspaldiko urtetan ari da Euskadiko nahiz Estatuko beste lurralde batzuetako unibertsitate ezberdinekin lankidetzan. Horrela, UPV/EHUko beste fakultate batzuetako ikasleek egin dituzte kanpoko praktika akademikoak Ertzaintzan.

Hitzarmenak 4 urteko indarraldia izango du, eta beste lau urtez luzatu ahal izango da.

Hezkuntza

1,1 MILIOI EUROKO LAGUNTZA BILBOKO UDALARI, HAUR-ESKOLETAN EGINDAKO INBERTSIOEGATIK

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du Bilboko Udalari 1.134.000 euroko zuzeneko dirulaguntza ematea, Haurreskolak Partzuergoko bi haur-eskolatan burutu dituen birgaitze lanak eta azpiegitura-gastuak finantzatzeko, zehazki Larreagaburuko eta Indautxuko haur-eskoletan egindako lanetarako.

Indautxuko haur-eskolaren kasuan, Bilboko Udalak lokala erosi eta egokitu zuen haur-eskola berria irekitzeko. Larreagabururi dagokionez, lehendik dagoen haur-eskola handitzea da laguntza honen bidez finantzatzen den jarduketa.

Bilboko Udala, Euskadiko beste 179 udalerrri bezala, Haurreskolak Partzuergoko kide da. Partzuergo horrek kudeatzen dituen 16 haur-eskola daude egun Bilbon. Laguntza honen zenbatekoak Next Generation funts europarretan du jatorria.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

ONETSI DA EAE-KO ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA

Gobernu Kontseiluak baimena eman du, Iñaki Arriola Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak hala proposatuta, etxebizitza baten edo zuzkidura-ostatu baten legezko okupaziora jotzeko eskubide subjektiboaren dekreturako; araudi horrek 2015eko EAeko Etxebizitza Legeak aitortzen duen eskubide hori garatzen du. Dekretuak Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa aitortzeko eskakizun, baldintza eta prozedurak arautzen ditu, eta aukera ematen du alokairuko etxebizitza sozial batera jotzeko edo, bestela, merkatu librean errentamendu baten hileko ordainketa erraztuko duen prestazio ekonomiko batera jotzeko, mota horretako kontratu bat dutenen kasuan.

Gaur egun, EAEn, 8.200 pertsonak eta familiak dute etxebizitza baterako eskubide subjektiboa aitortuta. Eskubidea pixkanaka aitortu du Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza Legea onartu eta hurrengo urteetan: 2016an hiru kide edo gehiagoko familiei, 2017an bi kideko bizikidetza unitateei eta 2018an pertsona bakarreko unitateei.

Etxebizitza baterako eskubide subjektiboa eskuratzeko eskakizun orokorrak dira, besteak beste: adinez nagusia izatea edo emantzipatuta egotea, urtebeteko egoitza eraginkorarekin, etengabearekin eta eskabidearen aurrekoarekin; etxebizitzarik ez izatea; Etxebiden etxebizitza bat alokairuan izateko inskribatuta egotea, etxebizitzaren eskatzaileen erregistroan hiru urteko antzintasunarekin, eta gehienez honako diru-sarrera hauek izatea:

- Urtean 13.000 euro haztatu, bakarrik dauden pertsonen kasuan
- 17.000 euro, bi kidek eratzen dituzten bizikidetza-unitateen kasuan
- Eta 19.000 euro, hiru kidek edo gehiagok eratzen dituzten bizikidetza-unitateen kasuan.

Zenbateko horiek gaur egungoak (9.000, 12.000 eta 15.000 euro) baino handiagoak dira, eta Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko EAeko Sistemari buruzko Legean ezarritakoekin parekatzen dira. Lege horrekin bat etorritik, murriztu egiten da Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroaren antzintasuna, lautik hirura.

Etxebizitzaren prestazio osagarritik etxebizitzaren prestazio ekonomikora

Dekretu horretatik aurrera, EAEn etxebizitzaren bi prestazio handiak bateratzen dira, DSBEari lotutako etxebizitzaren prestazio osagarria (EPO) eta Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-arloak kudeatzen duen etxebizitzaren prestazio ekonomikoa (EPE) batu baitira.

Dekretuak plan iragankor bat ezartzen du EPOa jasotzen dutenek etxebizitzaren prestazio ekonomikoa (EPE) kobratzen hasteko, indarraldia amaitzen den unean. Kontuan izan behar da EPOa bi urterako ematen dela eta EPEa denboran mantentzen dela, eskubide subjektiboaren aitortzea eragin zuten kausek iraun bitartean.

Mekanismo horren bidez, EPOa iraungitzen zaienek automatikoki kobratuko dute EPEa urtebetez; epe horretan, etxebizitzarako eskubide subjektiboa eskatu beharko dute. Bien bitartean, Lanbidek indarrean dauden EPOak kudeatzen jarraituko du, erabat iraungi arte. Dekretuak, era berean, eskubide horretara jotzeko aukera ezartzen du bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eta gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzen dituztenentzat.

Diru-sarreraren mugak igotzeko berrikuspena berehala egingo da, Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denean. EPOtik EPERako aldaketa 2024ko apirilaren 2tik aurrera izango da; ordura arte, egokitzapen teknikoak eta giza taldeen prestakuntza egingo dira.

Etxebizitza duina eta egokia

Dekretu honen helburua da etxebizitza duin eta egoki baterako sarbidea bermatzea; beraz, eskubidea eskatzeko beharrezko etxebizitzarik ezak salbuespen batzuk ditu: etxebizitzak ez izatea bizigarritasun-dekretuak ezartzen dituen gutxieneko baldintzak; azalera erabilgarria 15 m² baino gutxiagokoa izatea pertsonako; banantze- edo dibortzio-prozesu baten ondoren erabilera eskusiboa beste ezkontideari esleitu izana, eta 65 urte baino gehiago dituzten pertsonak edo mugikortasun murriztua duten pertsonak irisgarritasun-araudia betetzen ez duen eraikin batean bizitzea.

Kasu horietan guztietan, pertsonak etxebizitzarako eskubide subjektibora jo ahalko dute, nahiz eta etxebizitza bat izan; izan ere ulertzen da daukaten etxebizitza horrek ez dituela behar diren gutxieneko baldintzak betetzen.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

BAIMENA EMAN DA GUZTIRA 225 ETXEBIZITZATARAKO ALOKAIRU ESKURAGARRIKO SUSTAPEN PRIBATUAK EGITEKO LEHEN BI HITZARMENETARAKO

Iñaki Arriola Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak Gobernu Kontseiluari Madeilia enpresarekin eginiko bi lankidetzaz hitzarmenen berri eman dio; haien bidez, alokairu eskuragarriko erregimenean bi sustapen kudeatu eta eraikiko dira. Hura 2022ko azaroan sortu den espezialitate berri bat da, enpresa pribatuek erregimen orokorreko etxebizitza sozialen eraikuntza sustatzeko, Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoen bidez.

21.000 eta 39.000 euro bitarteko urteko errenta haztatuak dituzten bizikidetzak unitateentzako alternatiba bat da; izan ere, kolektibo horrek arazoak ditu merkatu librean etxe batera jotzeko eta kolektibo horretan 7.000 pertsona daude Etxebiden erregistratuta. Iazko azaroan onetsi zen agindu hori eta helburua da lurzoru pribatuak mobilizatzea alokairu eskuragarriko, etxebizitzako 18.000 euroko laguntzen truke, baldin eta 20 urtez espezialitate horretara bideratzen badira, edo 45.000 euroko laguntzen truke, 50 urtez espezialitate horretara bideratzen badira –modalitate horren iraupena luzatuz gero, laguntza gehigarriak aurreikusten dira–.

Figura berri hori sustatzeko lehen bi hitzarmenak bigarren modalitate horri dagozkio, eta hitzarmenetako bat 124 etxebizitza sustatzera bideratzen da eta bestea, 101 etxebizitza sustatzera; guztiak daude Aretxabaletan, Vitoria-Gasteizen hedapen-eremu batean, hiriaren hegoaldean. Lehen hitzarmenerako, Eusko Jaurlaritzak 5,58 milioi euroko dirulaguntza zuzenak emango ditu eta bigarrenerako, 4,54 milioioak.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

ELANKIDETZAK GENERO EKITATEAREN ETA BAKEAREN ALDEKO HAINBAT EKIMEN SOLIDARIO BABESTUKO DITU

Gobernu Kontseiluak hainbat erakundetarako zuzeneko zazpi dirulaguntza onartu ditu. Guztira, 1.530.000 euro inguru izango dira. Laguntza horiei esker, eLankidetzak-Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikak sailekoa, babestuko ditu emakumeak ahalduzko ekimenak Amerikako Erdialdean eta Afrikan, herrialde arabiarretan maskulinitate berriensustapena, Afrikan eguzki-energiako ekimenak edo Hegoko hainbat herrialdeetan bake prozesuak, besteak beste.

Genero ekitatea eta emakumeen ahalduntzea

Lehenengo dirulaguntza zuzena NBE Emakumeei zuzendutakoa izango da. 400.000 euro bideratuko dira “Zaintzen ausartu” eskualde-programa berritzaileari, Afrika Iparraldean eta Ekialde Ertainean maskulinitateak eta gizarte-arau patriarkalak eraldatzeko. Horretarako, besteak beste, erabaki publikoak hartzen dituzten gizonezko sareak indartuko dituzte, eta erlijio-erakundeen arteko elkarrizketa eta liderrei berdintasunean prestakuntza emango diete.

Aurten, eLankidetzak NBE Emakumeei beste dirulaguntza eman dio, El Salvadorren, emakume politikarien ahalduntze prozesuak eta emakumeen parte-hartze politikoa sustatzeko.

Bestalde, eLankidetzak 81.000 euroko dirulaguntza emango dio Colectiva de Mujeres para el Desarrollo Local elkarteari Latinoamerikako eta Karibeko 15. Topaketa Feministaren antolaketan laguntzeko. Topaketa azaroaren 22tik 25era egingo da El Salvadorren, eta, bertan, 2.000 feminista baino gehiagok parte hartuko dute.

Emakumeen ahalduntzeari jarraiki, eLankidetzak 240.000 euro bideratuko ditu Friends of Barefoot Collegek Zanzibarren duen ekimena babestera. Hori esker, emakumeak eguzki-energiaren eta bizitzeko baliabideen inguruko prestakuntza eta gaitasunak garatzen dituzte. Honako hau, nazioarteko erakundeari emandako bigarren dirulaguntza izango da, eta, aurrekoari esker, Zanzibarreko eta Euskadiko hainbat eragileen arteko trukaketa egon zen.

Aurrekoa ez da eguzki-energiari lotutako babestuko den ekimen bakarra; izan ere, 141.867 euro zuzenduko ditu garapenerako agentziak Eki Fundazioari Sierra Leonan eguzki-energia eta gazteen ekintzailatza eta enplegua bultzatzeko.

Bakea eta uretarako giza eskubidea

Gobernu Kontseiluak onartutako beste laguntza bat Dialogue Advisory Group (DAG) erakundeari zuzenduko zaio. 250.000 euro bideratuko dira indarkeria murrizteko elkarrizketa politikoak errazteko eta Afrikako Aintzira Handietako, Mozambikeko, Venezuelako eta Kolonbiako eskualdeetako gatazkak prebenitzeko. DAG adiskidetzaren aldeko apustua eta talde armatuen desmobilizazioan eta armagabetzean aurrera egiten laguntzen duen erakundea da.

Era berean, eLankidetzak 200.000 euro emango dizkio Nazioarteko Bake Brigadei (PBIri). Ekimenak nazioarteko komunitatearen eragin politikoa sustatuko du Afrikan eta Latinoamerikan giza eskubideen defentsarako pertsonak, erakundeak eta komunitateak babesteko.

Azkenik, eLankidetzak AKUAL-Ertamerikaren eta Euskadiren arteko ur eta saneamenduko lankidetzak programa sustatzen jarraitzen du bere bigarren edizioan. Horretarako, 217.595,71 euro emango dizkio Euskal Fundazioa Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes erakundeari 2023-2024 urteko plana egiteko, uretarako eta saneamendurako giza eskubidea sustatzen laguntzeko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK LANKIDETZA-HITZARMENA SINATU DU ZINEMATOGRAFIAREN ETA IKUS-ENTZUNEZKO ARTEEN INSTITUTUAREKIN (ICAA), EUSKARAZKO EKOIZPENAK SUSTATZEKO

Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren bitartez, Kultura eta Kirol Ministerioaren Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuarekin (ICAA) sinatutako hitzarmenari. Hitzarmen honen helburua da euskarazko zinema- eta ikus-entzunezko industriaren ekoizpena, banaketa, erakusketa eta hedapena sustatzea eta horrela, ICAAk 648.646,07 euro transferituko dizkio Eusko Jaurlaritzari, 2023an euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpena, banaketa, erakusketa eta hedapena sustatzeko Euskadin egin zen inbertsioari dagozkionak.

Horrela, transferitutako funtsak bat egingo du Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak joan den [apirilaren 18an onartutako ikus-entzunezko produkzioarako deialdiarekin](#), 2.430.000 euroko zuzkidurarekin. Horrela, aipatutako ICAAk transferitutako funtsaren bidez, 3.230.000 eurokoa izango da zuzkidura, eta horietatik 800.000 euro euskarazko ekoizpenera bideratuko dira.

Eusko Jaurlaritza 2019an hasi zen funts hori berreskuratzeko negoziatzen Kultura eta Kirol Ministerioarekin, eta lan-mahai bat sortu zen gainerako autonomia-erkidegoekin, baldintzak negoziatzeko. Zupiria sailburuak eta Iceta ministroak 2021eko irailaren 20an Donostian, Etxepare Euskal Institutuaren egoitzan, egindako bileran ere aztertu zen gaia.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren ustez, funts horiek berreskuratuz euskarazko ikus-entzunezko ekoizpena indartuz joango da.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO DESTINA 300.000 EUROS A LAS ENTIDADES LOCALES PARA DESARROLLAR PLANES DE EMANCIPACIÓN JUVENIL

- **Los Ayuntamientos podrán conocer la situación de las personas jóvenes en relación a la emancipación**
- **Además, les permitirá impulsar iniciativas locales ligadas a la emancipación juvenil**

El Consejo de Gobierno ha dado el visto bueno a la Resolución del Secretario General de Transición Social y Agenda 2030 por la que se establecen las bases y se convocan las subvenciones, por un importe de 300.000 euros, dirigidas a Ayuntamientos para impulsar iniciativas en el ámbito local que tengan como objetivo propiciar el proceso de emancipación de las personas jóvenes.

Con el apoyo de esta convocatoria los Ayuntamientos podrán elaborar planes de emancipación juvenil y planes jóvenes, así como su seguimiento o la evaluación. Además, podrán realizar otras iniciativas de ámbito local que tengan como objetivo favorecer el proceso de emancipación de las personas jóvenes, así como la sistematización y evaluación de iniciativas ya realizadas con tal objeto.

El año pasado se concedieron 7 subvenciones para la elaboración de planes y actuaciones ligadas a la emancipación juvenil por un importe de 58.000 euros, lo que permite a los Ayuntamientos conocer cuál es la situación de las personas jóvenes en su municipio, así como identificar aquellas áreas en las que impulsar o reforzar medidas que faciliten su emancipación.

Esta convocatoria se encuentra recogida en la Estrategia Vasca 2030 para favorecer la emancipación juvenil en su quinto eje, relativo a la resiliencia.

Seguridad

LANBIDE Y ERTZAINITZA ACTUALIZAN EL CONVENIO PARA COLABORAR EN LA SEGURIDAD DE QUIENES TRABAJAN EN EL SERVICIO PÚBLICO Y EVITAR INTENTOS DE ESTAFAS

El Servicio Vasco de Empleo-Lanbide y el Departamento de Seguridad han actualizado el convenio por el cual colaboran en garantizar la seguridad de quienes trabajan en las 42 oficinas de Lanbide y evitar cualquier intento de estafa, según el protocolo que suscriben el Vicelehendakari primero y consejero de Seguridad, **Josu Erkoreka**, y la Vicelehendakari segunda y consejera de Trabajo y Empleo, **Idoia Mendia**.

El ámbito de la colaboración comprenderá entre otras actuaciones, que la Ertzaintza ofrecerá a Lanbide el análisis, evaluación de riesgos y estudio periódico sobre la seguridad y el orden en sus dependencias; el desarrollo de procedimientos adecuados de actuación en relación a amenazas vertidas contra personas trabajadoras, pintadas, sabotajes o daños en las instalaciones y mobiliario; la realización de las inspecciones que en cada momento se determinen, al objeto de detectar irregularidades relativas a asuntos relacionados con el padrón municipal; la realización de formación especializada mediante conferencias, talleres o seminarios sobre falsedades documentales; y la formación especializada sobre la protección de las víctimas de violencia de género, así como desarrollar procedimientos adecuados de actuación, al objeto de dar respuesta a solicitudes y peticiones de informes sobre percepción de prestaciones sociales de personas perceptoras, en el ámbito del desarrollo de funciones de policía judicial que corresponde a la Ertzaintza.

Para el Servicio Público de Empleo, la actualización de este convenio para los próximos cuatro años supone una garantía de protección para quienes trabajan en Lanbide, y coincide con el refuerzo de las medidas se han venido desplegando para una gestión eficaz de las prestaciones, que sea garantista con las personas que la reciben y que sea a su vez rigurosa en el uso de los recursos públicos. Esas medidas tienen que ver con el incremento de la interoperabilidad con el resto de las Administraciones Públicas para un conocimiento preciso de la situación de las personas perceptoras, los protocolos internos habilitados para detectar intentos de estafa, los cauces de colaboración abiertos con la Fiscalía del Vasco y la Brigada de Extranjería de la Policía Nacional, y la creación de la Unidad de asistencia, inspección y control, prevista en la Ley del Sistema vasco de garantía de Ingresos e Inclusión aprobada por el Parlamento el pasado diciembre.

Seguridad

LA ERTZAINZA COLABORARÁ EN LA FORMACIÓN DE ESTUDIANTES DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

- **Se trata de un convenio de colaboración educativa entre la UPV-EHU y el Departamento de Seguridad para la formación práctica de las y los estudiantes del Departamento de Sociología y Trabajo Social**

El Gobierno Vasco, a través del Departamento de Seguridad, suscribirá un convenio de colaboración educativa con la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea para mejorar la formación integral del colectivo de estudiantes y asegurar su preparación profesional para su inserción en el mundo laboral. Este convenio establece el marco regulador de las prácticas académicas externas del alumnado del Departamento de Sociología y Trabajo Social de la UPV-EHU en la Ertzaintza.

Concretamente, alumnas y alumnos del Título Propio en Suicidología, realizarán trabajos, así como las prácticas asociadas a los mismos, en dependencias de la Ertzaintza, bajo su asesoramiento y colaboración, mediante la acogida y tutorización de estas prácticas.

Este convenio, además de propiciar un contacto necesario y enriquecedor para ambas Instituciones, permitirá la realización de estudios que, en el futuro, puede redundar en los procedimientos y eficacia de la Ertzaintza en esta materia.

Desde hace años, el Departamento de Seguridad mantiene colaboraciones con distintas Universidades, tanto de Euskadi como del resto del Estado. Así, estudiantes de otras Facultades de la UPV-EHU han realizado prácticas académicas externas en la Ertzaintza.

El convenio tendrá una vigencia de 4 años, prorrogables hasta cuatro años adicionales.

Educación

SUBVENCIÓN DE 1,1 MILLONES DE EUROS AL AYUNTAMIENTO DE BILBAO PARA INVERSIONES EN HAURRESKOLAS

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su reunión de hoy la concesión de una subvención directa al Ayuntamiento de Bilbao, por un importe de 1.134.000 euros, para la financiación de los gastos de infraestructura para la rehabilitación de las escuelas infantiles de Larreagaburu e Indautxu, ambas del Consorcio Haurreskolak.

En el caso de la haurreskola de Indautxu, la actuación del Ayuntamiento de Bilbao ha consistido en la compra y el acondicionamiento del local para la escuela infantil. En lo que respecta a Larreagaburu, la actuación que se financia es la ampliación de la haurreskola ya existente.

El Ayuntamiento de Bilbao es, al igual que otros 179 municipios de Euskadi, miembro del Consorcio Haurreskolak, y cuenta con 16 escuelas infantiles gestionadas por el citado consorcio. El importe de esta ayuda tiene su origen en los fondos europeos Next Generation.

Planificación Territorial, Vivienda y Transportes

APROBADO EL DECRETO QUE REGULA EL DERECHO SUBJETIVO A LA VIVIENDA DE EUSKADI

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde propuesta del consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, Iñaki Arriola, al decreto del derecho subjetivo de acceso a la ocupación legal de una vivienda o alojamiento dotacional, normativa que desarrolla este derecho reconocido por la Ley vasca de Vivienda de 2015. El decreto regula los requisitos, condiciones y procedimientos para el reconocimiento del Derecho Subjetivo a la Vivienda (DSV) y permite el acceso a una vivienda social de alquiler o, en su defecto, a una prestación económica que facilite el pago mensual de un arrendamiento en el mercado libre a quienes cuenten con un contrato de este tipo.

A día de hoy, en Euskadi, 8.200 personas y familias disponen de DSV, un derecho que se fue reconociendo de forma paulatina en los años siguientes a la aprobación de la Ley. Se comenzó en 2016 con las familias de tres o más miembros, en 2017 se continuó con las unidades convivenciales de dos personas y en 2018 el proceso culminó con el reconocimiento a las unidades de un solo miembro.

Entre los requisitos generales para obtener el derecho subjetivo a la vivienda se encuentran ser mayor de edad o persona menor emancipada, con un año de residencia efectiva, ininterrumpida e inmediatamente anterior a la solicitud, carecer de una vivienda, contar con una inscripción en Etxebide para un hogar en alquiler, con una antigüedad de tres años en el registro de solicitantes de vivienda y disponer de unos ingresos máximos de:

- 13.000 euros anuales ponderados en el caso de personas solas
- 17.000 para unidades de convivencia de dos miembros
- Y 19.000 euros para los casos de unidades de convivencia de tres o más miembros.

Estas cuantías, que incrementan las actuales situadas en este momento en los 9.000, 12.000 y 15.000 euros en los distintos tramos, se equiparan a las establecidas en la Ley del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y para la Inclusión. También, en consonancia con esta ley, se reduce la antigüedad en el Registro de Solicitantes de Vivienda Protegida que pasa de cuatro a tres años.

De la prestación complementaria de vivienda a la prestación económica de vivienda

A partir de este decreto convergen en Euskadi las dos grandes prestaciones de vivienda, con la unificación de la Prestación Complementaria de Vivienda (PCV), vinculada a la RGI, y la Prestación Económica de Vivienda (PEV) que gestiona el área de vivienda del Gobierno Vasco.

El decreto establece un plan transitorio para que quienes reciben la PCV pasen a cobrar la prestación económica de vivienda (PEV), en el momento en el que finalice su vigencia. Hay que tener en cuenta que la PCV se concede por un plazo de tiempo de dos años, mientras que la PEV se mantiene en el tiempo mientras subsisten las causas que motivaron el reconocimiento de Derecho Subjetivo.

A través de ese mecanismo, las personas a las que se les extinga la PCV pasarán a cobrar automáticamente la PEV durante un año, plazo en el cual deberán solicitar el derecho subjetivo a la vivienda. Entretanto, Lanbide seguirá gestionando las PCV que se encuentren en vigor hasta que se extingan por completo. El decreto establece también el acceso a este derecho a las personas que perciben el ingreso mínimo vital y las ayudas de emergencia social.

La revisión al alza de los límites de ingresos se producirá de forma inmediata con la publicación del Decreto en el Boletín Oficial del País Vasco, mientras que el traspaso de la PCV a la PEV tendrá lugar a partir del 2 de abril de 2024, periodo hasta el cual se desarrollarán las adaptaciones técnicas y la formación de los equipos humanos.

Vivienda digna y adecuada

El decreto persigue garantizar un acceso a una vivienda digna y adecuada, por lo que la carencia de vivienda necesaria para solicitar el derecho tiene algunas excepciones: que la vivienda no reúna las condiciones mínimas establecidas por el decreto de habitabilidad, que la superficie útil sea inferior a 15 m² por persona, que tras un proceso de separación o divorcio el uso exclusivo haya sido adjudicado al otro cónyuge y que personas mayores de 65 años o con movilidad reducida vivan en un edificio que no cumpla con la normativa de accesibilidad.

En todos estos casos, las personas podrán acceder al Derecho Subjetivo a la Vivienda pese a contar con una, por entender que la existente no reúne las condiciones mínimas necesarias.

Planificación Territorial, Vivienda y Transportes

LUZ VERDE A LOS DOS PRIMEROS CONVENIOS DE PROMOCIONES PRIVADAS EN ALQUILER ASEQUIBLE PARA UN TOTAL DE 225 VIVIENDAS

El consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, Iñaki Arriola, ha puesto en conocimiento del Consejo de Gobierno dos convenios de colaboración con la empresa Madeilia para la gestión y construcción de dos promociones en régimen de alquiler asequible, una nueva especialidad creada en noviembre de 2022 para potenciar la edificación de viviendas sociales de régimen general por parte de empresas privadas, con el apoyo a través de ayudas económicas del Gobierno Vasco.

Se trata de una alternativa dirigida a unidades convivenciales con rentas anuales ponderadas entre 21.000 y 39.000 euros, un colectivo que presenta dificultades para poder acceder a un hogar en el mercado libre y en el que se encuentran en torno a 7.000 personas registradas en Etxebide. La orden aprobada en noviembre del año pasado busca movilizar suelos privados para el alquiler asequible, a cambio de ayudas de 18.000 euros por vivienda si se destinan a esta especialidad durante 20 años o 45.000 si es por 50 o más –en caso de que se amplíe la duración de esta modalidad hay previstas ayudas adicionales-.

Los dos primeros convenios para impulsar esta nueva figura se corresponden con esta segunda modalidad y están destinados a una promoción de 124 y otra de 101 viviendas, todas ellas en Aretxabaleta, un área de expansión de Vitoria-Gasteiz al sur de la ciudad. Para la primera, el Gobierno Vasco aportará ayudas directas por 5,58 millones de euros y para la segunda 4,54 millones.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

ELANKIDETZA APOYARÁ VARIAS INICIATIVAS SOLIDARIAS A FAVOR DE LA IGUALDAD DE GÉNERO Y LA PAZ

El Consejo de Gobierno ha aprobado siete subvenciones directas a organizaciones por algo más de 1.530.000 de euros. Gracias a estas ayudas, eLankidetza-Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, perteneciente al Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, contribuirá al empoderamiento de mujeres en Centroamérica y África, al impulso de nuevas masculinidades en países árabe, a iniciativas de energía solar en África o en procesos de paz en varios países del Sur, entre otros.

Equidad de género y empoderamiento de mujeres

La primera subvención directa irá para ONU Mujeres y será de 400.000 euros. Esa ayuda se dirigirá al programa regional “Impulsando los cuidados”, con el que se intentará transformar las masculinidades y las reglas sociales en el norte de África y Oriente Medio. Para ello, se fortalecerán las redes regionales de hombres que toman decisiones públicas o se impulsará el diálogo entre organizaciones religiosas además de formar en temas de igualdad a sus líderes.

Este año, eLankidetza ha concedido otra subvención a ONU Mujeres para promover los procesos de empoderamiento de las mujeres y su participación política en el Salvador.

Por otro lado, eLankidetza concederá una subvención de 81.000 euros a la asociación Colectiva de Mujeres para el Desarrollo Local con el fin de organizar el 15. Encuentro Feminista Latinoamericano y del Caribe. El encuentro se realizará en El Salvador del 22 al 25 de noviembre y participarán más de 2.000 feministas.

Con relación al empoderamiento de mujeres, eLankidetza destinará 240.000 euros a la iniciativa que Friends of Barefoot College tienen en Zanzíbar. Se trata de formar a mujeres en energía solar para que puedan instalar y mantener sistemas en las comunidades. Está será la segunda subvención a la organización internacional, que contempló un intercambio entre diferentes agentes en Euskadi y Zanzíbar.

Además, la anterior no va a ser la única subvención relacionada con la energía solar. eLankidetza apoyará con 141.867 euros a Eki Fundazioa para impulsar la energía solar y el empoderamiento y empleo juvenil en Sierra Leona.

Paz y derecho humano al agua

Otra de las subvenciones aprobadas por el Consejo de Gobierno se dirigirá a la entidad Dialogue Advisory Group (DAG), que recibirá 250.000 euros para facilitar el diálogo político para reducir la violencia y prevenir conflictos en la región de los Grandes Lagos africanos, Mozambique, Venezuela y Colombia. DAG es una organización que apuesta por la reconciliación y contribuye a avanzar en la desmovilización y el desarme de grupos armados.

Asimismo, eLankidetzta aportará 200.000 euros a las Brigadas Internacionales de Paz (PBI) para la incidencia política en la comunidad internacional sobre la protección de personas, organizaciones y comunidades defensoras de derechos humanos en África y Latinoamérica.

Por último, eLankidetzta continúa impulsando la segunda edición de AKUAL, programa de cooperación interinstitucional en materia de agua y saneamiento Centroamérica-Euskadi. Así, la agencia vasca aportará 217.595,71 euros a Euskal Fonda Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes para la elaboración del plan anual 2023-2024, con el que contribuirá a la promoción del derecho humano al agua.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO FIRMA UN CONVENIO DE COLABORACIÓN CON EL INSTITUTO DE LA CINEMATOGRAFÍA Y DE LAS ARTES AUDIOVISUALES (ICAA) PARA FOMENTAR LAS PRODUCCIONES EN EUSKERA

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde al convenio suscrito por el Departamento de Cultura y Política Lingüística, a través de la Dirección de Promoción de la Cultura, con el Instituto de la Cinematografía y de las Artes Audiovisuales (ICAA) del Ministerio de Cultura y Deporte. El objeto de este convenio es fomentar la producción, distribución, exhibición y difusión de la industria cinematográfica y audiovisual en euskera y así, el ICAA transferirá al Gobierno Vasco 648.646,07 euros correspondientes a la inversión que se realizó en Euskadi en 2023 para fomentar la producción, distribución, exhibición y difusión del audiovisual en euskera.

De esta forma, el fondo transferido se sumará a la [convocatoria de producción audiovisual aprobada por el Departamento de Cultura y Política Lingüística el pasado 18 de abril](#), con una dotación de 2.430.000 euros. Así, a través del fondo transferido por el citado ICAA, la dotación ascenderá a 3.230.000 euros, de los que 800.000 euros se destinarán a la producción en euskera.

El Gobierno Vasco comenzó a negociar con el Ministerio de Cultura y Deporte la recuperación de este fondo en 2019 y se creó una mesa de trabajo con el resto de Comunidades Autónomas para negociar las condiciones. El asunto también fue tratado en la reunión que el consejero Zupiria y el ministro Iceta mantuvieron el 20 de septiembre de 2021 en San Sebastián, en la sede del Instituto Vasco Etxepare.

El Departamento de Cultura y Política Lingüística considera que mediante la recuperación de estos fondos se reforzará la producción audiovisual en euskera.